

Angel Pikabeak 32 egun daramazki gose greban; 15 kilotik gora galdu ditu eta oso ahul dago

■ Espetxean jasotako tratua eta isolamendu egoera salatzeko hasi zuen Pikabeak gose greba ■ Asteburuan aulki gurgildunean jaso zuen senideen bisita ■ Etxerategi dispersioa buka dadila eskatu du.

ANGEL Pikabea preso hernaniarra gose greban dago maiatzaren 18a ezkeror. Pikabeak 15 kilotik gora galdu ditu, oso ahul dago eta bere egoera gero eta larriagoa da, Etxerat elkarrekin jakitera eman duenez. Pikabea maiatzaren 18a ezkeror jasan duen tratua eta isolamendu egoera salatzeko dago gose greban.

Biluzik eta kolpeka

Moulins espetxean hasi ziren arazoak Etxerategi dienez, ihesa prestatzen ari zela akusatuta kolpeka eta biluzik

atera baitzuten Pikabea espetetik, hasieran Lyongo espetxera eta Perpignanora hamar egun beranduago. Horrekin batera hiru hilabeteko isolamendura kondenatu zuten. Etxerategi dio gezurra dela ihesa prestatu

zuela, eta ez dela aurrenekoa aldia Moulinsko espetxeko zuzendari berak horrelako gauzak egiten dituen. Preso-

en senitartekoen elkarrekin sartzeko Administrazio penitentiarioek ontzat eman dutela espetxeko zuzendaritzaren salaketa, batere egiaztatu gabe.

Etxerat
"Maiatzaren 18an kolpeka eta biluzik atera zuten kartzelatik eta hiru hilabeteko isolamendura zigortu, ihesa prestatu zuela dioen salaketa faltsuz akusaturik".

Aulki gurgildunean
Joan den asteburuan egin zioten senitartekoei azken bisita eta preso ereñotzuarra aulki gurgildunean atera zen bisitara. Seni-

deak bisitara gehiago ez joateko eskatu du orain Pikabeak, hamabost kilotik gora galdua, izugarri ahul dagoelako.

"Sakabanaketa bukatu"

Pikabearen egoeraren aurrean Etxerategi eskatzen du sakabanaketa egoerarekin bukatzeko: "sakabanaketarekin bukatu egin behar da, kasu hauek ez lirateke gertatuko presoak Euskal Herrian balaude" dio Etxerategi. Elkarrekin egoera hau salatzeko idatzi bat aurkezteko asmoa du Udaletxean. □

Preludioak herriko 300 artista bilduko ditu gaur

HERNANIKO ia 300 artista bilduko ditu gaur Preludioak: 11 talde, 3 bakarlari, 2 aktore, 2 aurkezle, 7 zuzendari eta bertsolaria. Aurtengoa 11garren edizioa da eta Ruth Martin aritu da zuzendari lanetan. Iragarpen kontzertua urte gutxian ohitura bihurtu da Hernanin. Gaur gaueko 22:30etan hasiko da, Gudarien plazan.

Arratsaldean, berriz, Preludio Txikia, 16:00etan. □

■ ATLETISMOA

Azeri Bila proba gaur

AZERI Bila herri lasterketa jokatuko da gaur Hernanin gazte eta helduentzat. Gazteek 17:30etatik aurrera dituzte probak, eta helduen karrera 18:30etan hasiko da. Izena ematea lasterketa hasi aurrean bertan egin liteke. □

■ IGERIKETA

Euskadiko txapelketak

ASTEBURU honetan Euskadiko Igeriketa txapelketa jokatuko da Hernaniko igerilekuan. Gaur goiz eta arratsalde dira probak, 10:00etan eta 16:00etan, eta bihar goizean bakarrik, 09:00etatik aurrera. □

■ PELOTA

Hiru final gaur

GAUR arratsaldean hiru pelota txapelketetako finalak jokatuko dira Tilosetan eta kiroldegiko frontoian. Batetik, Herriko pala txapelketako finalak jokatuko dira 15:00etatik aurrera kiroldegian: Oscar-Ibanek Lujanbio-Imazekin kontra. 17:00etan, paleta gomako torneoko finalak izango dira: Muneta-Ruiz-Mendizabal eta Martinez elkarren kontra.

Arratsaldeko 19:00etatik aurrera, berriz, Kronika Eskupelota txapelketako finalak Tilosetan: Zelaia-Urdangarin Legarreta-Ezeizaren kontra. Partiduak 18:00etatik 19:00etara atzeratu dira Azeri Bila lasterketa dagoelako. Eurria bada bi aste atzeratuko dira. □

'Burdina eta sua' bihar iluntzean Chillida-Leku museoan udarako solstizioa ospatzeko

■ Narratzaileak, txistulariak, bertsolariak, txalapartariak eta su artifizialak izango dira. ■ Chillida-Lekun bigarren ospatuko dute udarako solstizioa, eta aurten San Joan jaien barruan ■ Autobusak debalde Hernanitik.

UDARAKO solstizioa ospatzeko ekitaldia egingo da bihar Chillida-Leku museoan eta *burdina eta sua* ekitaldia egingo dute berriz ere, maiatzaren *burdin hotsak* ekitaldiak izan zuen arrakasta ikusita. Urteko egunik luzeena ospatzeko ekitaldi honetan Udaren laguntza izan du museoak eta Joxan Rekondok elkarlan honen garrantzia azpimarratu zuen atzo prentsaurrian "Chillida-Leku ataria baita Hernanirentzat, eta ongiatorri adeitsu horretan Chillida Lekuren alturara egon behar du herriak eta horretan ari gara" esan zuen. Luis Chillidak ere garrantzitsua jo zuen elkarlana, "Eduardo Chillidak beti izan ziolako kariño berezia Hernaniri". Iaz hasi ziren solstizioa ospatzen eta Chillidak esan zuenez



Luis Chillida, museoko zuzendaria, Rekondo Alkatea eta Fernandino Kultur Zinegotziarekin.

"konturatu ginen herriko festekin batera zela eta hori bultzatzea nahi izan dugu eta Udalen festetako programan sartu du".

Ekitaldia eskultoretan

Chillidaren eskultura inguruan egingo da biharko ekitaldia. Oreka Tx taldeko txala-

partariak, Maialen Lujanbio eta Jon Maia bertsolariak, Mikel Etxekopar txistularia, Aukeran dantza taldea eta Olatz Beobide narratzaileak hartuko dute parte ekitaldian, eta piroteknia enpresa batek su artifizial txikiak ere egingo ditu festa girotzeko. □

Eguna: Bihar, igandea

Ordua: gaueko 21:30etatik aurrera (museoa 20:30etarako irekita egongo da).

Prezioa: 10 euro. Jubilatuta eta ikasleek 6,5 euro.

Autobusak debalde Hernanitik 20:30etatik aurrera.

TXINTXUA
Plater konbinatutako
espezialitateak
Jantetxea
Eguneko menua
Bakatak
Plater konbinatuak
Karta
Kokuraga Auzoa - 20.120 Hernani - Tel.: 943.552.199 / 943.553.092


ondojoan
ONDOJAN - ERAMATEKO JANA Antzian
Oilasko erreak enkarguz, etxeko sukaldaritza,
prestatutako janaria, txarkutaria,...
IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK
Antziola, 9. T. 943 33 12 52. Hernani

URUMEA
Taberna
kontzertua gaur:
DESPERVICIO
22:00 etan
Kardaberaz kalea 37

“Bolivian indigenak orain arte esklabu bizi izan dira eta orain hasi dira antolatzen”

■ Manuel Egigurenek 44 urte daramazki Hego Ameriketara lanean, horietatik 22 Bolivian ■ Aste honetan Hernanin hitz egin du, Kooperazio Taldeak antolatuta.

MANUEL Egiguren erligio-soak 44 urte daramazki Hego Ameriketara lanean eta aste honetan bere esperientzia kontatu du Hernanin emandako hitzaldian. Gaur egunean Bolivian Beni herriko Gotzaia denak dio Bolivian indigenak esklabu bizi izan direla orain artean, eta orain hasi direla antolatzen. Herrialde horretan, % 67 dira indigenak. Denora, 35 komunitate daude eta bakoitza bere hizkuntza du. Egigurenek kontatu zuen nola 1990n indigenek 600 km-ko martxa egin zuten oinez beren lurra eta duintasuna eskatzeko, eta bide horretan ari direla esan zuen.



Txema Mercado, Manuel Egiguren eta Jesus Rebollo, hitzaldian.

Manuel Egiguren bestek beste Taupadak Gobernu Kanpoko Erakundearekin elkarlanean ari da, eta erakunde horrek Hernaniko Udalaren diru laguntza du Bolivian di-

tuen proiektuetarako. Proiektu horien helburua berriz ere lurra eta duintasuna eskuratzea da eta ari dira pausoa ematen, Manuel Egigurenek adierazi zuenez. □



Gure Etxolako eskulanetako sarituak.

GURE ETXOLA

Begoña Ugarte Mapi Arrieta eta Nieves Kortabitarte sartuak

ASTE honetan Gure Etxolako erakusketarako jarri du urteko pintura ikastaroetan egindako lanekin. Lanik onenei saria ere eman die, eta aurten Nieves Kortabitarte, Mapi Arrieta eta Begoña Ugarte izan dira irabazleak. Irakasle lanetan Juan Albin aritu da. □

BERTSOLARITZA

Eskolarteko finala

BEÑAT Gaztelumendi eta Asier Azpiroz Hernaniko bertso eskolan dabilzan bertsolari gazteek Euskadiko Eskolarteko Finala dute gaur Mungian. Beñat Gaztelumendi da gaur egungo txapeladuna 18 urte artekoetan. Asier Azpiroz 14 urtez azpikoetan arituko da eta aurreneko finala du gaur Euskal Herriko txapelketan. □

Bildu Hernani pozik HZren emaitzekin

BILDU Hernanik balorazioa egin du Europako Hauteskundeetan izandako emaitzei buruz eta poza azaldu du HZk lortutako emaitzengatik. Bere esanetan “herri honek berriz ere bere ahotsa altxa egin du eta PSOEn asmo faxistak porrotara eramanez ditu”. BHk “Hernaniko herria zoriondu nahi du beste behin ere bere konfidantza ezker abertzaleko hautagaitzan jarri duelako.

Egoera zail honetan ere argi geratu da ezker abertzaleko kideok gehiengo garetara herri honetan”. Bestalde, Bildu Hernanik adierazi du, HZk 2.390 boto lortu dituela eta Udala osatzen duen hirukoak 1.800. BHren ustez hori “izugarriko porrota” eta herriaren nahia errespetatzeko eta “ezker abertzalearen lekua eta ordezkari politiko onartzeko” eskatu die. □

BH eta Zutik erraustegien aurka

BILDU Hernanik eta Zutik gaur Donostian erraustegiaren kontra egingo den manifestazioa joateko deia egin dute. BHren esanetan, “betikoen interes ekonomikoak mugituta eta beste alternatibak nahiko landu gabe azaltzen da”. BH dio “apartheid politikoa baliatutako erabakia” dela.

Bestalde, Zutik erakundeak dio Lemoiz gabe bizitzea lortu bada, azken belaunaldi-

ko erraustegirik gabe bizitzea ere lortuko dela. Era berean dio badirela alternatiba hobekak “minbizia eta malformazio genetikoak izateko arriskurik gabeak” eta hiri hondakinak berriz erabiltzeko aukera ematen dutenak.


Inzineradorearen kontrako manifestazioa gaur Donostian da 18:00etan. Boulevardean hasiko da eta Foru Aldundia-aren aurrean bukatu. □

Antton Zabala eskalatzaile gaztea hirugarren Espainiako Kopan

ANTTON Zabala 16 urteko eskalatzaile hernaniarra da eta dagoeneko oso maila onean dabil. Orain dela gutxi Espainiako Kopan hirugarren gelditu da, 18 urtez azpiko proban. Espainiako Kopako bigarren proba zen (Zabala ez zen aurrenekoan izan) eta hernaniarra beste 12 eskalatzaileekin aritu zen lehian. Finalerdietako bidea kateatu zuen, eta finalekoan oso gutxigatik ezin izan zuen katera iritsi. Bidearen goi aldean bukatu zuen bere jarduna.

Antton Zabala Mendiriz Mendi elkartekoa da, baina, berez, Fortuna Kirol Elkartearekin entrenatu eta konpetitzen du. Fortunarekin hiru hilabete bakarrik daramazki eta horrek oraindik eta meritu haundiagoa ematen dio egin duenari. Kopako hirugarren eta azkeneko proba abuztuaren jokatu du Asturiasen. Bihar bertan, ordea, Antton Zabala Berribeitin (Nafarroa) jokatu du txapelketan izango da.

Normala denez, Antton Zabala berria da oraindik es-



Antton Zabala eskalatzen.

kalada konpetizioetan, baina, gogotik ekin dio. Espainiako Kopaz gain, beste bi lehiaketa jokatu ditu. Blokeko Donostia Hirian hernaniarrak irabazi egin zuen 16 urtez azpiko proba, eta Nazioarteko Irekian bigarren gelditu zen. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103
- ▶ Alkoholiko anonimo: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
- ▶ Gazez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892

IRAGARKI MERKEAK

Bizikleta salgai. Errepideko Zeus txirrinda. Egoera onean. Deitu: **943 556338**

Bi emakume behar dira etxeko lanak egin eta pertsona helduak zaintzeko. Bat astelehenetik ostiralera eta bestea asteburuan. Deitu: **655 741524**

Kanping karroa salgai. Karabana bihurtzen da. Aluminiozko panelak. Interesatuak deitu arratsaldeetan: **943 551832**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**

Telemar
Itxastele, S.L.
Elkano 13 - 943 55 33 99 - 943 33 00 49

MUGIKORRETAN:
produktu berria,
GPS a zure mugikorrean
Wayfinder Mobile Navigator

Galdetu konpatibildadea:
NOKIA 6600 NOKIA 3650
NOKIA 7650 NOKIA N-Gage
Siemens SX1 Sony Ericsson P800

ELEKTROGAILUETAN:
Maiztaren 1etik ekainaren 15era
"RENOVE" PLANA
%10eko deskontua
13 produktutan
Ez hasi ordaintzen
iraila arte.

INTERNET:
Draindik ez al daukazu ADSLrik?
Zerorrek instalatu
Kit ADSL» USB
ALTA eta MODENA dolaín

**HERNANI
HIZKUNTZAK**
Gure Ingelesetxea

ZORIONAK Xaber, Cambridge First
azterketa gainditzeagatik eta
Zorte on, Irati, Juan, Aitziber, Ion,
Amaia, Ion Ander, Arantxa, Ander
(First), eta Urko eta Julen (Advanced)

**UDAKO IKASTARO
ERDI-TRINKOAK**
Maila guztiak: Haur eta helduak
MATRIKULA ZABALIK
Deitu Alan/Joe: **943 33 11 08**
KALE NAGUSIA 41, 1

Antziola-Motor
Salmenta eta tailer
zerbitzua

Ford FocusC-MAX

**Ford Focus
famiako
kide berria**

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: asteazken 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13